

B

BARREN

TOKIKOM



Santaneak sorginduta



LERUN jatetxea

Lerun Industrialdea, 3
20870 ELGOIBAR - Tel.: 943 743 196 - Wifi zona



15,90€
Larunbateko menua
(edariak barne)

- Eguneko menuak 10,50€ (edariak barne)
- Enpresentzako menua 15,90€ (edariak barne)
- Menua zure neurrira
- Gosariak
- Ogitarleakoak
- Pintxoak enkarguz
- Ospakizunak
- Urtebetetzeak

Sanbartolomeetako menua

- Itsaski-paella
 - Olagarro, otarrainxka eta ozpin-olio entsalada
 - Perretxiko eta gulazko entsalada epela
-
- Txibiak bere tintan
 - Entrekota plantxan, roquefort saltsarekin
 - Masailak saltsan
-
- Ebxean egindako azkenburukoa aukeran

19,90€
(edariak barne)

San Bartolome eguna,
txiki eguna eta
ferirako egunetan.



Sargoateko erromeria

UZTAILAK 28, IGANDEA

11:00 Meza

11:30 Salda eta txorizo banaketa

Jarraian,

- Bertsolariak: German Meabebasterretxea eta Ziarda
- Trikitilariak: Xabier eta Ekain

ANTOLATZAILEAK: Sallobenteko Jai Batzordea • Debemen • Elgoibarko Izarra • Elgoibarko Udala



Badatoz Sanbartolomeak!

Publizitatea jartzeko:

943 744 112

barren.publi@elgoibarkoizarra.com





Maitane Mendikute

Egun luzeak, hondartza, gau-giro ederra, atun erre usaina.... Oso gogoko dut sasoi hau, Jani! Nork ez! Badi-rudi urte guztiko errutina eta estresak bat-batean desagertzen direla eguzkiak indar pixkatekin jotzen gaituenean, eta nola ez, lanera edo eskolara joan beharrik ez dugunean.



Janire Elordi

Agian guk horregatik hartzen dugu eguna horrenbeste gogoz, urteroko kontua delako eta ume-umetatik ospatzen dugulako. Neska koskorak gineneko argazki batean ere hantxe gaude, gu biok koadrilako beste batekin pagoaren itzalean jendartean eserita, elkarri belarrira kontu-kontari,

bertsolariak kantuan ari diren bitartean.

Eta.... igarri gabe... berriro ere iritsi zaizkigu santanak! Hauek ere gogoz hartzen ditugu, nahiz eta urteroko kontuak den, nahiz eta ume-umetatik ospatzen ditugun...

Ez dira sanferminak, ezta Rio de Janeiroko inauteriak ere! Ez dira munduko jairik ospetsuenak, ezta jendetsuenak, ezta onenak ere seguru asko. Baina geureak dira. Eta horrek egiten ditu berezi.

Aspaldian niretzat egun hori hain berezi, goizean ermitaraino igotzeak egiten du. Badago gora igo gabe parrandan murgiltzeko aukerarik, baina ez da gauza bera! Ikaragarri atsegin dut goizeko bertso-trikiti saioaren ostean, eguerdirako Santa Anatik behera egiten den kalejira hori, denok batera Azpilgoetara lehenengo, tabernara bidean. Ogitartekoa janda, barrua txakolinetan bustitzera kalera, mendiko zelaia atzean utzi eta asfalto gainean festari jarraipena ematera. Tabernaz tabernako ibilaldia Mendarozabal aldean bukatzen den arte, bazkari-pasara egiteko, berandu, presarik gabe, Txiki egunean Elgoibarren bezala.

Baina egunaren sekretua jada kontatu dudala uste dut, edo? Bai ba, kalez-kale denok batera tropelean umore onez ibiltze hori alegia!

“Santa Ana egunaren sekretua kontatu dut. Kalez-kale tropelean umore onez ibiltzea, alegia”

Izan ere, egun horretan berdin dio inor ez ezagutzea, zure koadrilakoak etxean lotan egotea, aspaldian herritik kanpo bizitzea, zure ingurukoak lanean izatea... uztailean 26an erraz konpartitzen dira algarak eta hitz-aspertuak edonorekin. Eta zuk luzatutako gonbita, aurten bereziki, azken urteotan Mendarora bizitzera etorri eta oraindik Santa Anara igo ez direnei zuzendu nahiko nieke, mendaror sentitzeko egun aproposena delako. Animatu!

“Ez dira munduko jairik ospetsuenak santanak, baina geureak dira”

Eta konturatzen naiz, musika talde ospetsurik edota su artifizial garestirik izango ez dugun arren, ondo pasako dugula herriak parte hartzen badu, eta herriak jaiak bere egiten baditu. Play-back lehiaketa, herri bazkaria, goitibeherak, triki-bertso poteoak.... zer zentzu lukete ba, herriaren parte hartzerik gabe?

Eta iritsi da uztailean 26a ere! Gaur egun handia da guretzat, Jani! Santa Ana eguna!!! Egia esatea nahi baduzu, ez dakit ondo deskribatzen zerk egiten duen hain berezi, hain xarmangarri egun hau. Uste dut, berriro ere gakoa parte-hartzean dagoela, eta herritar guztiak Santa Anako pagope azpian biltzean. Zahar, ume eta gazte... denok batera festa giroan ibiltzeko eguna da. Aspaldian ikusi ez duzun lagunarekin solasaldia izateko eguna. Zapi berdea jantzi, eta fandango eta arin-arina dantzatzeko eguna. Osagai nagusiak, berriz, ogitartekoa, txakolina, bertsoak, trikitixa eta festarako goinoa.

Ez al zarete sekula izan Mendaron Santa Ana egunean? Ba oraindik garaiz zabiltzate!

I. URTEURRENA

ANA ECHEVERRIA AGUIRREGOMEZCORTA
“Señorita Anita”

2012ko abuztuan 5ean hil zen. Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, ostiralean, uztaileak 26, Santa Ana Egunean, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriguarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
biZi-biZaKa!



MENDAKORO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu izen-abizenak, NAN eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Plastikoa ahalik eta gutxien erabili!

Uztailaren 3an, Plastikozko Zorrorik Gabeko Nazioarteko Eguna ospatu zen mundu osoan (*International Plastic Bag-Free Day*). Errauste planten kontrako GAIA mugimenduak, Zero Waste Europe, Fundació Prevenió de Residus i Consum eta beste zenbait elkartek antolatuta hainbat ekimen egin ziren. Oso garrantzitsua da jakitea plastikozko zorroak txarrak direla planetarentzako. Zergatik? Desegiteko 100 urtez gora behar dituztelako eta gehienek minutu gutxiz erabiltita mendeetan kalteak eragiten dutelako.

Egoera honen aurreran hainbat herrialdetan neurriak hartu dituzte: Los Angelesen behin baizik erabiltzen ez diren zorro birziklagaitzen debekua sustatu dute, eta Eskozian plastikozko zorro horiei zerga bereziak ezartzeko presio egiten ari dira.

Euskal Herrian saltoki batzuetan dagoneko ez dituzte poltsak doainik ematen, norberak arduratu behar du bere poltsa eramateaz (telazkoak, minbrezkoak...), baina oraindik gune asko daude plastikozko zorroak zein plastikoz bildutako produktuak saltzen dituztenak. Eta horiek zer egiten dugu? Begiratu ibaiak eta errepede bazterrak! Lotsa sentitzen dut. Jarrai dezagun Zero Zabor bidean. Plastikoa ahalik eta gutxien erabili behar dugu, ezinbestekoa da! Murriztu, berrerrabili eta bertziklatu dezagun funtamentuz.

A.Z.C

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn en dozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Perutik Kanadara: Ameriketako dantzak izango dira protagonista Nazioarteko Folklore Jaialdian

Uztailaren 24an izango da jaialdia, 22:30etik aurrera, Olaizaga kiroldegian

Dantza eta musikaren bitartez, mundua apur bat hobeto ezagutzeko aukera izango dugu datorren astean. Uztailaren 24rako antolatu du Haritz euskal dantza taldeak Nazioarteko Folklore Jaialdia, eta urtero bezala, mundu zabaleko dantzak ikusteko aukera eskainiko dute. Aurten kontinente amerikarreko folklorea izango da protagonista. Peru eta Kanadako bi talde gonbidatu dituzte, eta horiekin batera eskainiko du dantzaldia Elgoibarko Haritz dantza taldeak. Ipar Amerikatik, Kanadatik hain justu, Ensemble Folklorique Mackinaw taldea etorriko da; eta hegoaldeetik, berriz, Peruko Jallmay. Txankakua merkataritza elkarteko dendetan salgai daude dagoeneko jaialdirako sarrerak: 5 euro ordaindu beharko dute helduek, eta 3 euro, berriz, jubilatuek, 14 urtez azpikoek eta gazte txartelaren jabe direnek. Dena den, nahi duenak egunean bertan ere izango du sarrerak erosteko aukera, kiroldegiko lehiatilan bertan. 22:30ean hasiko da dantzaldia.

Mackinaw (Kanada)

Konpainia hau 1974an sortu zuten, Actoneko Tovarich eta Drummondvilleko Alunelul folklore-taldeen elkartzetik. Azken herri horretan du egoitza, Quebec erdialdean, eta folklore tradizionalaren berreskuratze eta mantentze lanetan dihardu, esperientzia handiko giza-talde baten zuzendaritzapean. Taldearen izena, Mackinaw, antzina basoan lanerako erabili ohi zen jaka gorri eta beltzetik dator. Quebec-eko dantzen bilduma zabala aurkeztuko dute, dantza eta antzerki-izaera uztartuz.



Jallmay (Peru)

Jallmay hitzak "lurra lantzea" esan nahi du kiltxueraz. 1996an sortu zuten kultur-elkartea, Peruko kultur aniztasuna sustatu eta hango ondarea babesteko asmoarekin. Izan ere, Peruko topografiaren ezaugarriek eskualde bakoitzean eta, zenbait kasutan, herri bakoitzean bertako dantzak garatzea ekarri zuten. Jallmay elkartearen ikuskizunek, beraz, Peruko aniztasun horren irudia eskaintzen dute, eta horixe da beraien originaltasuna.



Haritz EDT (Elgoibar)

Haritzek 40 urte betetzen ditu aurten, eta 27. folklor jaialdia antolatu dute eguaztenerako. Oraingoan, Nafarroako dantzak taularatuko dituzte. Lehen zatian, Erronkariko Ttun-ttuna, Baztango zortzikoa, eta Iturengo soka-dantza izango ditugu ikusgai. Bigarren zatian berriz, Behe Nafarroara jauzi egingo dute, Luzaideko dantza koloretsu eta alaiak eskainiz. Urtero pazko-igandez antzezten den inauteria aurkeztuko dute, besteak beste, kontradantzak, jauzia, sorginak eta euskaldunak, kadrillea eta dantza luzea eskainiz.



Kale izenen plaka berriak jarri ditu Udalak

Herriko mapa berria argitaratu dute, izendegi berriarekin

Elgoibarko Udaleko Hirigintza Sailak herriko kale, plaza, parke eta bestelako tokiei izena ematen dizkieten plakak berritu ditu. Hori dela eta, plaken itxura aldatu egin da, eta plaka berriak Udalaren logoa koloretan, fondo urdina eta letra zuriak ditu.

Udalak jakinarazi duenez, hiru izan dira plaka horiek berri-zeko arrazoiak: alde batetik, azken urteetan Elgoibarrek izandako garapenak udalerrian kale eta toki berriak eragin dituelako, eta hauei ere izena ematearen beharra sortu delako. Bestetik, herriko toponimia ikerketa egin dute azken urteetan, eta honen ondorioz, hainbat kale-izen zuzendu behar zirelako. Azkenik, plaka batzuk zaharkituak zeudelako eta urteen poderioz jarri diren plaka mota guztiak bateratu egin nahi izan dituztelako.

Horrez gain, Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak kale izendegi berria dela-eta, udalerriko mapa berria argitaratu zuen 2012an, toponimia berriarekin eta beste berrikuntza batzuekin. Mapa hori eskuratu nahi duenak Kultur Etxera jo dezake, Euskara Sailera, goizez. Bestela, Udalaren web gunean ere ikusi eta kontsultatu daiteke mapa hori. www.elgoibar.org helbidean, Euskara Sailaren atalean sartu behar da horretarako.



Bizikleta gehiago jarri dituzte herritarren eskura, Emugi egitasmoaren barruan



Bizikleta elektrikoek gain, bizikleta arruntak ere jarri ditu Udalak herritarren eskura, Emugi egitasmoaren barruan. Erabiltzaileei erraztasunak emate aldera, gainera, bizikleta eta auto elektrikoentzako aparkaleku gehiago jarri dituzte herrian zehar. Aurrerantzean, beraz, Ubitarten, Kalebarren plazan eta Toletxegainen aparkatu ahal izango dira bizikletak. Toki batean hartu eta beste batean aparkatzeko aukera dago. Autoak, berriz, Ubitarten eta Toletxegainen aparkatu daitezke.

Eraikin zaharren azterketa teknikoa

Eusko Jaurlaritzak onartu duen dekretu baten arabera, derrigorrezkoa izango da 50 urtetik gorako eraikinetan azterketa teknikoa egitea. Eraikinen segurtasuna eta mantenua egokia dela ziurtatuko dute azterketa honi esker, eta arriskuak sahestu. Hortaz, 1901. urtea baino lehen eraikitako etxebizitzek jabeek abenduaren 31rako egin beharko dute azterketa, 1940ra artekoak urtebete gehiago izango dute; hau da, 2014ko abenduaren 31ra arte. 1965a aurretik eraikitakoak 2015eko abenduaren 31rako egin beharko dute, eta 50 urtetik gorakoak 2015eko abenduaren 31tik aurrera. Azterketa hori teknikari profesionalak egingo dute, eta txosten batean jasoko dituzte eraikinean egin beharreko hobekuntzak.

ENEKO ULAZIA Kultura zinegotzia

lazko jaien balorazio positiboa egin du Mendaroko Udalak, eta aurtengoak iaizkoaren bidetik antolatu dituztela esan du. Denen gustua egitea “ezinezkoa” dela adierazi du Kultura zinegotziak, baina herritar guztiak parte hartzeko moduko jaiak antolatzen ahalegindu direla nabarmendu du. Krisia dela-eta, estutu beharra izan dutela esan du, baina, hala ere, egitarau “oparoa” osatu dutela.



Borja Rodriguez bokala eta Eneko Ulazia Kultura zinegotzia.

Berrikuntza batzuk badaude egitarauan eta aldaketa bakarren bat ere bai, tartean txupinazoa bera atzeratzea. Zer dela eta?

Txupinazoa indartze aldera egin dugu. Aurreko urteetan txupinazoa 18:00-18:30ak aldera izaten zen, eta ondoren izaten zen Salbea, baina ikusten genuen txupinazoko orduan jende gutxi batzen zela plazara eta txupinazoa atzeratzea erabaki genuen, jaien hasieran ahalik eta jende gehien batzeko. Ezin genuen beste modura egin, Salbea txupinazoren osterako lagako bagenu berandutu egingo zitzaigulako, Katasorginaren jaitsierak asko luzatzen duelako txupinazoa bera.

Salbearena ez da, beraz, erabaki politikoa izan.

Ez, ez. Azken batean ordutegia ere mantendu egin dugu. Salbea bere orduan egingo da, baina txupinazoa atzeratuko dugu. Gainera, batzuek pentsatuko dute aldaketa handia dela, baina ez pentsa horrela denik. Udalteixe berria egin zenetik egiten zen Salbea txupinazoaren ostean. Ordura arte, kanpainjotzearekin eta Salbearekin hasten ziren jaiak. Beraz, lehenengo usadiora bueltatzen gara.

Mendaroko Txirindulari Elkarteak botako du aurten txupina. Zer dela eta?

“Espero dugu jendeak erantzutea eta parte hartzea”

Udalak 30 urte betetzen ditu aurten eta iruditu zitzaigun polita litzatekeela Udalak beste urte betetzen dituen elkarte omentzea.

Dantza tradizionalak ere itzuli dira aurten egitaraura. Hilaren 25ean ariko dira Sahatsa taldekoak, frontoian.

Bai. Jai-batzordeko kide batek egindako proposamena hartu dugu aintzat. Aspaldiko urteetan ez zela euskal dantza tradizionalen inguruko jaialdirik egin esan zigun pertsona horrek, eta iruditu zitzaigun polita izan zitekeela berreskuratzea, garai batean oihartzun handia izaten zuelako herrian egiten zen ikuskizunak. Taldea ere bazuen Mendarok. Jubilatuen egunean izaten zen normalean jaialdia, Azpilgoetan.

laz “ahalegin berezia” egin zenuten jai Azpil-

goetara eramateko. Auzoetatik ahalegin handiagoa eskatzen dute batzuek.

Saiatu gara, baina ez da erraza, ez pentsa. Auzo bakoitzaren ezaugarriak aztertu eta non zer egin daitekeen aztertu dugu, auzo guztiak ez direlako aproposak edozertarako. Egia da tabernariak nahi izaten dutela euren ingurura pilatzea jendea, baina egia da, era berean, jaiak ez direla antolatzen tabernariak etekina atera ahal izateko. Hori ere lortzen badugu, ondo, baina herritarrentzako jaiak egin behar ditugu guk. Danborrada, txaranga... horiek auzo guztiak pasatzen dituzte, baina gainerako ekitaldiak nolabait zentralizatzen behartuta gaude. Ezin dugu oholta batetik bestera mugitzen jardun egunero, eta ez dago hiru auzotarako beste jenderik ere.

Aurten ere jai-batzordea sortzeko deia egin duzue. Nolako erantzuna izan duzue?

Guk uste baino eskasagoa. Bi deialdi egin ziren. Lehenengora ez zen inor agertu eta bigarenerako ahoz aho jardun genuen deia egiten. Guk nola-halako zirriborro bat aurkeztu genien eta orohar ontzat eman zuten. Ekarpen bat edo beste egon dira, bai. Ematen du gurea moduko herri txiki batean erantzuna beste bat izan behar dela, baina beti gertatu den kontua da hori. Hori bai, zerbait antolatzen denean, jendeak laguntzen du gero egunean bertan. Dena den, aurten errazago egin zaigu jaiak antolatzea. lazko jaien balorazio oso positiboa izan zen, eta orduko egitaraua hartu dugu oinarritzat. Berrikuntzak ere badira: argazki rallya, hondarrean irudiak egiten dituen laguna, iaz jaiotakoiei ongi-etorri ekitaldia...

Zenbaterako aurrekontua izan dute jaiak?

40.000 eurokoa, iaz baino 2.000 euro apalagoa. Badakigu ezinezkoa dela denen gustua egitea, baina saiatu gara denentzako jaiak antolatzen, eta orain, espero dugu jendeak erantzutea eta parte hartzea, herritarren parte-hartzeak egiten dituelako handi jaiak.

Santanak gazteen begietan



Kultura zinegotziak berak esan du: "Herritarren parte-hartzeak egiten ditu handi jaiak". Eta halaxe da. Zentzu horretan, santanetako egitarauan bada egun bat berezia: Koadrilen Eguna. Urteik urtera, koadrila gehiagok ematen dute izena egun horretan egin ohi den herri bazkarirako, eta berrikuntzarik handienak egun horren bueltakoak izan ziren iaz. Besteak beste, goitibeheren jaitziera berreskuratu zuten, hogeitaka urteren ondoren. Bada, egun horretan parte hartu zuten koadriletako bat osatzen dute Kilimendaroko neska-mutilek [jaz, koadrilen egunean parte hartu zuten gazteenak izan ziren]. 16-20 urte bitarteko gazteak dira, lau kintatakoak, eta haiekin egin dugu hitzordua, baina elkarrizketarako baino eguraldi hobea egiten du hondartzarako, eta bi bakarrik topatu ditugu lokalean: Alain Zulaika eta Aitor Etxeberria.

Duela bi urte parte hartu zuten estreinakoz Gazteen Eguneko paella lehiaketan, eta iaz, marmitakoarekin saiatu ziren, baina onartu dute kostatu zizaiela animatzea. "Ez da erraza". Lotsa kontua ere bade-la aitortu dute, baina aurtengorako gogoz claude. "Ez dugu ezer presatu. Beti azken egunerako lagatzen dugu dena. Gero erriidikulua egingo dugu, beharbada, iaz goitibeheretan egin genuen bezala, baina...", esan du Zulaikak. "Mugitzea kostatzen zaigu. Koadrilan beti izaten dira bat edo bi mugitzeko prest, baina zaila da gainerako guztietatik tira egitea", gehitu du Etxeberriak.

Nolanahi ere, santanetatik Koadrilen Eguna dute gustukuen, bere-

ziki bazkalostean egin ohi diren jolasetan herriko gazteen artean sortzen den "pike osasuntsu horregatik". Goitibehera jaitziera, playback-a eta paella lehiaketa dituzte begiz jota, baina lehiatzeko "zailtasunak" dituztela adierazi dute, "gaztetasunagatik". Goitibehera diseinatzeke gai ikusten dira, baina materiala lortzeko zailtasunak dituzte. Sukaldatzen ere ez direla batere abilak onartu dute, eta amen aholku guztiak beteta ere, zaila ikusten dute nabarmentzea. "Iaz, *Beitxik* [Iñigo Zubiaurre] bekainak ere erre zituen ia, urak irakin eta gainezka egin ostean", bota du bat-batean Zulaikak. Nolanahi ere, laugarren sailkatu ziren. Playback-a, berriz,... "Ez du ematen zaila, baina herri osoaren aurrera irte hori...". Lotsa hitza behin baino gehiagotan atera zaie berbaldian zehar. Galdu nahiko lukete santanetan.

Harreman berriak egiteko ere balio dute jaiak, eta ez lukete aukera hori galdu nahi. Ez dute erraza ikusten, baina. "Azkeneko urteetan kanpotik jende gehiago etortzen bada ere, santanak oso jai herrikoiak dira", esan du Aitorrek. Horregatik, inguruko herrietako gazteak erakartzeko moduko ekintzak botatzen dituzte faltan egitarauan. "Adibidez, garai batean Garagartzan egiten zen entzierroa. Gu umeak ginen, baina nik oso oroitzen onatzen daukat. Jende asko etortzen zen orduan", esan du Zulaikak. Izen handiagoko musika talderen bat ere ekarriko lukete jaietara, dirurik eta horretarako aginterik balute. "Ze esatek! edo Betagarri adibidez", gehitu du aldamenetik Etxeberriak. Gogotsu dira, hala ere. "Hau Mendaro da, eta hauek dira gure jaiak".

SANTANAK 2013

24 EGUAZTENA

18:00 Futbito txapelketaren finala, Ikastolako frontoian.

18:15 Kanpai-jotzea.

18:30 Salbea, Garagartzako elizan.

19:30 Txupinazoa eta Katasorginaren jaitsiera. Ondoren, kalejira Bizi-Poza txarangarekin.

20:00 laz jaiotako hurrei santanetara ongi-etorria egiteko ekitaldia, pleno aretoan.

23:30 Dantzaldia Laiotz taldearekin. Ondoren, DJ Kamel.

25 EGUENA

Santixao eguna

11:00 Txistulariekin kalejira.

12:00 Meza nagusia Garagartzan. Ondoren, Mausitxa txarangarekin kalejira.

17:00 Apar jaija Mendarozabalen.

18:00 Haurrentzako jolas atrakzioak ikastolan.

18:00 Sahatsa dantza taldearen ikuskizuna frontoian.

22:30 Nagusien danborrada Mausitxa txarangarekin. Ondoren, dantzaldia Drindots taldearekin.

26 BARIXAKUA

Santa Ana Eguna

10:30 Txistularien kalejira, Garagartzatik Santanara.

11:00 Meza nagusia Santanan. Ondoren, erromeria Ostolaza eta Andonegi trikitilariekin. Uxue Alberdi eta Andoni Egaña ariko dira bertsolariekin.

15:00 Herri bazkaria, ikastolako frontoian. Tikitak salgai daude dagoeneko Menditxo, Txirristaka eta Lagun Betikoak tabernetan, 22 euroan.

18:00 Herri kirolak. Gipuzkoako lehenengo mailako aizkolari txapelketa finala: Iñaki Azurmendi Peñagarikano, Jesus Mari Mujika Elola, Jose Mari Olasagasti Landa, Unai Otaño Albizu eta Joseba Otaegi Saizar.

Ondoren, afalordura arte, dantzaldia Luhartz taldearekin.

23:30 Luhartz taldearekin dantzaldia.



27 ZAPATUA

Koadrilen Eguna

11:00 Goitibeheren aurkezpena.

Ondoren, 12:00etan, Goitibeheren jaitsiera, Azpilgoetan.

13:00 Paella lehiaketa, frontoian. Txirristaka, Uztargi eta Arrats tabernetan eman daiteke izena.

13:00 Kalejira Bizi Poza txarangarekin eta buruhandiekin.

14:30 Herri bazkaria, frontoian. Txapel originalena sarituko dute. Ondoren, koadrilen arteko jolasak.

19:00 Motxaia Band taldearekin kalejira.

23:30 Koadrilen arteko playback lehiaketa, eta sari banaketak.

23:00 Dantzaldia Izargi taldearekin.

03:00 Diskoteka DJ Refereerekin. Ondoren, txokolatada eta gaupaseroen argazkia ateratzea.

28 DOMEKA

Haurren eta Adinekoen Eguna

10:00 Dultzaineroen kalejira.

11:00 Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako gaztetxoentzako pintura lehiaketa, ikastolan.

11:30 Haurrentzako jolas atrakzioak ikastolan.

12:00 Meza nagusia frontoian, eta

ondoren euskal dantzak Mendaroko trikitixa taldekoekin.

12:30-16:00 Txu-txu trenak.
14:00 Umeen bazkaria, frontoian. Udalak edaria eta postrea eskainiko ditu. Begiralerik ez da gongo.

14:00 Bazkaria Aizpe elkartearen.

16:30 Molto lasterketa Errekabarren zubian.

18:00 Haur danborrada, Bizi Poza txarangarekin.

20:00 Dantzaldia Caiman taldearekin. Atsedendian Playback gaztea eta pintura lehiaketako sari banaketa.

22:30 Dantzaldia Caiman taldearekin.

24:00 Katasorginaren igoera eta azken traka.

Mendaroko Udalak jakinarazi du santanetako egitarauaren liburuxka falta duenak udaletxean dituela eskuragarri. Nolanahi ere, jaien inguruko informazioa www.mendaro.net helbidean ere badago.

Oharra: Gaur bukatzen da pirolo lehiaketan parte hartzeko epea. Euskara hutsezkoak izan behar dira, originalak, eta ez sexistak. Irabazleak 50 euro jasoko ditu.

PELLO LARRAÑAGA

Sahatsa taldeko txistularia



Dantza tradizionalen inguruko ikuskizuna eskainiko du Sahatsa dantza taldeak santixao egunean frontoian, eta saio horren eta taldearen inguruko argibideak eman dizkigu Pello Larrañaga taldeko txistulariak.

“Dantza saio entretenigarria izango da Mendarokoa; sentitzekoa, bizitzekoa”

Frankismoa amaitu berritan sortu zenuten taldea, 1976an. Behar bereziren batek bultzatuta?

Ni ez nintzen hasierako talde hartan aritu, baina berez Sahatsa Urrestillan batzen zen lagun koadrila baten ekimenez sortu zen. Izango zuten ezinegon kulturala, izango zuten zerbait egiteko gogoia, eta dantzarako batu ziren. Sortu Urrestillan sortu zen taldea, eta hantxe entseatzeko zuten aurreneko urteetan. Azpeitiara pasatu ziren gero, eta gaur egun Azkoitin entseatzeko dugu, baina berez Azpeiti eta Azkoitiko jendea ibili da beti taldean.

Lagun talde baten kontua izan zen beraz, diktadura amaitu berritan hemen bertakoa sustatzeko konpromisoa baino gehiago?

Bietatik. Esango nuke garai hartan sortu ziren kultur elkarte guztiek badutela urteetan bizi izan zuten errepresio hari erantzuteko gogoia.

Sahatsa, tradiziozko dantza eta doinueta jarri diozue izena ikuskizunari. Izenak berak esaten du zerbait, baina zer da Mendarokoa ikusiko duguna?

Azkeneko urteetan badago sormenerako joera bat. Talde askok aukeratu dute bide hori eta gu ere ibili gara kreazioa lantzen azkeneko urteetan. Sortu ditugu dantza berriak Benito Lertxundiren musikarekin eta egin ditugu bestelako saio batzuk ere, baina iritsi da momentu bat berriro tradiziozko formatorak itzultzeko beharra sentitu dugula. Esan beharra dago, gainera, herri batzuetatik espreski eskatu digutela tradiziozko emanaldiak egitea. Mendarokoa saioak bi zati izango ditu. Lapurdi, Behenafarroa eta Zuberoko dantzak

izango dira lehenengo zatian, eta bigarrenengoan gehiago izango dira Gipuzkoa eta Bizkaiko dantzak. Lapurdi, Behenafarroa eta Zuberoko jautsi, makil-joko, kontradantza eta maskaradekin hasiko dugu ekitaldia. Bigarren zatian Bizkaiko eta Gipuzkoako itsasaldeko dantzei eskainiko diegu. Lehen, dantza talde gehienek eskainiko luketen dantzak izango dira, baina beharbada, beste itxura bat mantenduta. Dantza saio entretenigarria izango da; sentitzekoa, bizitzekoa.

Zenbat lagunek osatzen duzue taldea?

28 bat dantzari eta dozena bat musikari izango gara. Inoiz ez beste musikari gara eta talde handia osatzen dugu dantzari eta musikariak batuta, baina, aldi berean, kezka ere badaukagu, kosta egiten zaigulako dantzara jende berria erakartzea. Ez dakit kultur munduko jendea ondo ari garen, iruditzen zaidalako identifikatzen gaituzten gauzetarako interesa galtzen ari dela gazte jendea.

Ikerketa lana ere zuen gain hartzen duzue dantza taldeok, dela jantziak josteko edo dantza zaharrak berreskuratzeko.

Bai, saiatzen gara gu ere ahal dugun neurrian gauza horiek zaintzen. Dantzan.com-ekoak, esaterako, lan handia egiten ari dira zentzu horretan eta dokumentazio ugari batu dute.

Perfil jakinik badute zuen ikusleek?

40-45 urtez gorakoak edota dantzaren bueltan dabiltzan gazte-agoak izaten dira normalean.



Liburuak, papera, menajea, opariak...

Tel.: 943 033 631
 Faxa: 943 755 235
 E-posta: morroskillo@hotmail.com
 Herriko Enparantza, 18
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)

ONDO PASA JAIAK!

MENDARO



Tel.: 943 03 36 22 • Mugikorra: 600 44 02 55



KONPONKETA, BIRMOLDAKETA ETA
 CNCra AUTOMATIZAZIOA
 ERREMINTA MAKINA, BERRIA ETA
 BIGARREN ESKUKOAREN SALMENTA.

SANTOS Y PATXI SERVICIO TECNICO S.L.

ESSER Industrialea SE-5 • 20850 Mendaro (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 741 658 / 639 710 183 • Faxa: 943 742 349
 www.santospaxi.com • comercial@santospaxi.com

Arriola
Aroztegia



Garagartza kalea, 44
 Telf.: 629 258 172
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)




*Mendaroko Udalak
 Santana jai zoriontsuak opa dizkizue.*

aitz beltz

ondo pasa jaixak!

Tel.: 943 530 284
 Mendarozabal, 13 - 20850 Mendaro

AUTOZERBITZUA

ELKAR

Kilimon Hiribidea, 5 behea
 Telf.: 943 53 00 72 - Fax: 943 53 00 73
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)



www.electricidadperosanz.com
perosanz@euskalnet.net

Ibargain 17, AC behea
 Tel.: 943 202 268
 Faxa: 943 206 045
 20600 EIBAR

Herriko Enparantza 5
 Tel.: 943 033 535
 Faxa: 943 031 718
 20850 MENDARO

LEIRE JANTZIDENDA

ONDO PASA SANTA ANA JAIAK!



AZPILGOETA, 24
 20850 MENDARO
 Tfnoa.: 943 033 629
leirejantzidenda@euskaltel.net

Ondo pasa jaiak!

Mendaroko Haurreskola
943 755 219

Haurreskola

• Poligono Kurutz-gain, 9 A • 20850 MENDARO
• Tel.: 943 756 112 • Faxa: 943 755 085
• Mugikorra: 638 497 485
• e-posta: iralagoitia@iralagoitia.com

AZIBAR IRAOLAGOITIA GALLASTEGI

IRAOLA
arotz lanak

Ondo pasa jaiak!!

LANDA
ERRETEGIA

Ondo pasatu jaietan !!

Garagartza, 32 · MENDARO
☎ 943 75 60 28

mendaro
ikastola

Kilimon,2
Tel.: 943 756 141

MENDARO IKASTOLAKO TXOKOLOREN PARTEZ ONDO PASA JAIK!

PAGOERROTA
iturgintza

- Iturgintza
- Gasak
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza

Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)
Tel.: 943 75 60 44 - Faxa: 943 75 60 37 - Mugikorra: 659 334 323
E-mail: pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com - www.pagoerrotaiturgintza.com

Ondo pasa jaiak!

UZTAR

UZTARGI KAFETEGIA
Herriko enparantza 8
Tel: 943 03 01 50
MENDARO

TAXI

Kontxi Urain
MENDARO

Mobila:
607 575 728

Etxekoa:
943 755 052

30 URTE

GURPIL ARTEAN



Mendaro herriak beste urte beteko ditu aurten Mendaroko Txirrindulari Elkarteak, 30 urte, eta hori dela-eta, jaiei hasiera emateko ardura eman die Udalak, omenaldi gisa. Aitzakia hori baliatuta, taldea sortu zutenetako batzuekin eta gaurko zuzendaritzakideekin batu da BARREN.

Ainara Argoitia

Herri ekimenetik sortutako elkarte da Mendaroko Txirrindulari Elkarteak, txirrindularitza maite zuen koadrila baten ekimenez sortutakoa. 1983. urtean sinatu zituzten estatutuak Patxi Olazabalek, Ramon Alberdik, Maurizio Maiorak, Luis Mari Garatek eta Jabier Ezenarrok, baina gehiago izan ziren haien bueltan lanean ibili zirenak. “Dozenaka lagun”, Patxi Olazabalen esanetan. Tartean ziren, besteak beste, Juan Jose Zabala, Andres Egaña, Eduardo Zubiaurre eta Jose Manuel Muñoz bera, hogeita bost urtean MTE-ri estuki lotua egon dena. Hain justu ere, Mendaroko Txirrindulari Elkartearen 25. urtemugan laga zion Muñozek presidente izateari. Geroztik, herriko bost gaztek osatzen dute MTEko zuzendaritza: Ander Zulaikak, Alex Aranberrik, Borja Rodriguezek, Raul Santamartak eta Iñigo Lazkanok, baina hasierako urte haietan bezala, gaur ere talde handia batzen da klubaren bueltan. “Edozein huskeria antolatzeak ematen du lana, eta pentsatu ezazu zer den txirrindularitza proba bat antolatzea; zenbat jende behar den bide bazterrek zaintzeko bakarrik”, bota du Juan Jose Zabalak.

Ganduak mendi gainak lausotzen dituen modu berean lausotu diturte urteen joanak MTEko bazkide sortzaileen oroimenak, baina badira gauza batzuk, beharbada kostata lortutakoak direlako-edo, nekez ahazten direnak. Mendaron aurreneko txirrindularitza lasterketa bat jokatu zen eguna da horietako bat. 1985eko argazkia ekarri du mahai gainera Juan Jose Zabalak, kadeteen lasterketako. Esku batean lora

sorta bat eta bestean garaikurra duen mutil gazte bat ageri da bertan. “Ezagutuko duzu, ezta?”. Xabier Usabiaga da, Clas-Cajastur eta Euskadi taldeetako txirrindulari profesionala izandakoa, gaur egun Euskal Telebistan aurkezle lanetan ari dena. 1985eko ekainaren 2an jokatu zen lasterketa hori, Trinitate jaien barruan. Argazkia eskuan hartu, eta errenkadan bota ditu Zabalak lehenengo bost sailkatuen izenak: Usabiaga, Merketegi, Caballero, Mateo, eta seme gaztea bosgarren: Gorka Zabala. Hein handi batean, semeek, Gorkak eta Jose Inaziok, eraman zuten Juan Jose bizikleta mundura: “Gureak hasi aurretik ere baziren herrian bizikletan korritzen zutenak, Garate anaiak-eta: Juan Mari eta *Ixito*. Amateurra zen bata, eta besteak, *Ixitok*, Bidasoako Itzulia ere jokatu zuen. Ni, berriz, herri zulo denetan nenbilen, atzera eta aurrera, semeen atzetik, eta halaxe, sartu ginen saltsa horretan”.

Zabalak gogoan dauka lasterketa jokatzeko eguna aukeratzera Andres Egaña eta biek Donostiara, Federazioaren egoitzara, egindako bidaia. Ordurako, jakina, MTEren sorrerako talde hark hari asko mugituak zituen, elkarteari gorputza emateko. Talde lana izan zen, baina galdekatutako denak bat datoz esatean Jabier Ezenarro izan zela talde haren arima eta akuilu.

“Txirrindularitzan zerbait egiteko, federatuta egon behar da ezinbestez, eta kluba sortu beharra zegoen. Ez zen erraza, baina, eta saiatu ginen Kilimon arrantza eta ehiza elkartearen babesean sartzen. Hor- tik estatutuetan agertzen den izena: Mendaroko Kilimon Txirrindulari El-



Mendaroko txirrindulari talde bat MTE sortu aurretik: Inazio Loiola, Juanjo Arriola, Luis Mari Garate, Jesus Larrañaga, Jose Inazio Zabala, Jesus Garate, Juantxo Garate eta Jesus Mari Garmendia.

kartea. Notaritzako lanak egin ziren, eta ondoren, Kilimoian bertan afari bat egin zuten hainbat lagunek. Biharamunean Luis Mari Garatek deitu zidan esanez neu aukeratu nindutela presidente, afari hartan egotarik izan ez zuen bakarra”, esan du Muñozek.

Ekainean jokatu zuten lehenengo lasterketa, baina 1987an santanen egitarauan sartu zuten lehenengoz txirrindularitza lasterketa. Santiago egunez jokatu zen horietako lehena, goizez. Muñozek gogoan dauka txirrindulariak iristen zirenerako kale garbitzen hartu zituzten lanak. Garbi zegoen jaien aztoramen hartan ezin zela halako kirol proba bat ganoraz antolatu, eta halaxe, jaien aurreko astera aurreratu zuten proba, 90ean [gaur egun, uztaileko lehenengo zapatuan izaten da normalean]. Eskarmentua pilatu zuten, eta erronka handiagoei heltzeko adorea eman zien horrek MTEkoei. Horrek, eta herriko txirrindulari gazteak maila handiagoetan lehiatzen hasi izanak. Halaxe, jubilenen lasterketekin ausartu ziren. Hamabi bat mendarorrek korritu zuten herrian, dela kadeteetan edo jubenetan: Gorka Zabalak, Aingeru Gallastegik, Mikel Garatek, Iker Kanalaetxeberriak, Alex Aranberrik, Enekoitz Lazaroasterrek, Jurdan Ezenarrok, Ander Zulaikak, Egoitz Mendikutek, Beñat Urainek eta Iñigo eta Jon Lazkano anaiek. Haietako lau lehenengo bosten artean sailkatu ziren: Gorka Zabalak bosgarren egin zuen kadeteetan (1985), Iñigo Lazkano nagusitu zuen kadeteetan (1998) [urte hartan bi proba antolatu zituen MTEk: jubilenen lasterketa eta kade-



Mendaroko txirrindulari zale batzuk Piriniotara egindako lehenengo irteeran.

teena, eta gastuei aurre egiteko, santa eskean batutako dirua erabili zuten]; Ander Zulaikak laugarren egin zuen jubenetako bigarren urtean (1999), eta Beñat Urain lehenengo sailkatu zen jubenetan (2005).

Profesionalera iritsikoak

Gerora profesionalera iritsitako hainbatek ere jantzi zuten txapela Mendaron, tartean Xabier Usabiagak, Unai eta Aitor Osa anaiek, Gariokitz Bravok, Igor Romerok, eta Mikel Iturriak. Bravok, gaur Euskalteleko txirrindularia denak, irabazi zuen urtea izan zen Muñozen azkena antolatzaile lanetan [Euskadiko Txapelketako proba izan zen]. Anekdotita bitxi bat ere izan zen egun hartan. “Mendaroko ospitaleko aparkalekuan jarri genuen helmuga, eta berez, Euskadiko Txapelketa izanik, garaikurrak Federazioak zituen jartzekoak, baina bukatu zen lasterketa eta garaikurrik ez irabazlearentzat. Hura komerriak! Aizpe elkartera joan, hango apaletan geneukan garaikurrik handiena ekarri eta haretxe-



1985. Xabier Usabiagak irabazi zuen Mendaron jokatu zen aurreneko lasterketa. Gorka Zabalak bosgarren egin zuen urte hartan.

kin atera genion argazkia Bravori”, Gogoratu du Muñozek. Beste behin, berriz, behar baino aurretik hasi zuten lasterketa, jende pilaketa bat tarteko. “180 txirrindulari baino gehiagok parte hartu zuten lasterketa batean, txirrindulariak hasi ziren irteeran pilotzen, megafoniako autoak egin zuen aurrera, eta epaileak oraindik gauzak lotzen zeudela abiatu ziren txirrindulari guztiak. Arriagan geldituarazi zituzten ertzainek eta Mendaroraino ekarri zituzten bueltan, lasterketa berriz abiatzeko”.

Abenturak askotarikoak dira. Abentura direlako Mendaroko txirrindularitza zaleek Piriniotara-eta egindako irteerak ere. Gorka Zabalak gogoan dauka egin zuten lehenengoa. “Lehenengoz Mendaroko erropak jantzita! Handia izan zen. Autoz joan ginen, eta Tourmalet eta Luz Ardiden igo genituen. Han geundela herriko beste bi lagunekin ere egin genuen topo, Landa anaiekin”. Geroagoak dira MTEk antolatuta kanpora egin diren irteerak. “Gaurko zuzendaritzakoen kontuak dira horiek. Sekulako lana egiten ari dira”, gehitu du horren harira Muñozek. Bat dator Zabala aita ere. Gaur egun, jubilenen lasterketa antolatzeaz gain, mendiko lasterketa ere antolatzen du MTEk eta iaz, haur krosa ere antolatu zuten aurrenekoz. Gaur, bost lagunek osatzen dute zuzendaritza, baina 36 bazkidek osatzen dute elkartea. 25 urte ditu gazteenak, eta 61 zaharrenak, eta bizikletarako zaletasunak batzen ditu denak.

JABIER EZENARRO, TXIRRINDULARITZAREN ARIMA

Jende askok egin du handi Mendaroko Txirrindulari Elkarte, baina talde horretan bada izen bat denek nabarmentzen dutena: Jabier Ezenarro. "Bizi zuen txirrindularitza", esan du Ander Zulaika MTEko presidenteak. "Asteburu bakar batean lau lasterketa ere jarraitu izan zituen", gehitu du Alex Aranberrik. "Behin, erlojupeko proba batean, epaileek denborak gaizki hartu zituzten batean, berari galdetu zioten. Dena apuntatzen zuen bere arkatx txikiarekin. Ez zuen inoiz huts egiten". Bat datoz Juan Jose eta Gorka aita-semeak ere. "Gaur bizi balitz guk denok baino informazio gehiago eskainiko zizun hark. Datu base bat zen. Izugarrizko artxiboa zeukan etxean. Dena gordetzen zuen. Argitaratutako dena eta berak jasotako emaitza guztiak". Txirrindulari zen garaian beti ondoan sentitu zuen Gorkak, eta baita haren ondoren bide hori hartu zutenek ere. "Gure jarraitzaile sutsuena izan zen. Nik jokatu nituen lasterketa guztietara etorri zen. Izugarri zekien txirrindularitza, eta baita atletismoaz ere. Gogoan daukat umetan Anduzpera eramatzen ninduela autoz, han telebistako kate frantses batean Tourra ikustera. Txirrindulari profesionalak ere ezagutzen zuten. Euskal Herriko Itzulia, proba bukatu eta agurtzera etortzen zitzaizkion ziklistak. Handia zen", gehitu du. "Herrian txirrindularitza aritu garen denok dakigu Jabierrek zenbat eman zigun. Beti etortzen zen gu ikustera. Miresten genuen", nabarmendu du Anderrek. Bistan da estimutan zutela elkarizketatutako guztiak. Horregatik, 30. urtemugaren harira Udalak egin dien omenaldi hau berari eskainiko diote MTEko zuzendaritzakideek; gaurkoek eta sorrerakoek.



Herriko txirrindularitza zale batzuk Txirristaka taberna atarian, atsedend hartzen. Tartean, kaleko erropaz jantzita, Jose Manuel Muñoz, MTEko orduko presidentea. Arg.: Andres Egaña.



2006. Jabier Ezenarro (eskuinean) Salzburgon jokatu zen mundialean, Sean Kellyrekin.



Goian, iaz MTEk estreina-koz antolatutako haur kro-seko irudia. Behean, Maite Maiora Jokin ilobarekin, Mendaroko Mendi Lasterketan.



MTEkoek Jacara egindako irteerako argazkia. Quebrantahuesos proba entzutetsuko ibilaldia egin zuten hainbat bazkidek.

Aitziber Dominguezek irabazi du sanbartolomeetako kartel lehiaketa

Hirugarren urtez eskuratu du saria



Goian, Amaia Txurruka kultura zinegotzia eta Aitziber Dominguez, jaietako kartelarekin.

Aitziber Dominguezek aurkeztutako *Bartoloren alpargatak* izeneko lanak irabazi du San Bartolome jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa, eta 700 euroko saria jaso du. Hirugarren urtez jarraian Dominguezen lan batek iragarriko ditu, beraz, San Bartolome jaiak. Aurten 24 lan aurkeztu dituzte lehiaketara; iaz 13.

Elgoibarko Udalak, era berean, hainbat sari emango dizkie haurrentzako kartel lehiaketara lanak aurkeztu dituzten zazpi gazteei: Eider Cerdeira (11 urte), Telmo Roldán (9 urte), Haritz Vallejo (8 urte), Alex Roldán (5 urte), Nahia Baskaran (5 urte) eta Nora Beitia (4 urte).

Bi kontzertu eta DJ gaua antolatu dituzte biharko, Maalako jaien barruan

Uztailaren 22an izango da Madalena Eguna, eta horren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Maala inguruko tabernariak biharko. Goizean Azkaratera igoera egingo dute, korrika zein bizikletan, eta arratsaldean musika izango da nagusi. 20:00etatik aurrera, Trio medianoche eta Bikustik taldeen emanaldia izango da, Maalako parkean. Trio Medianoche garai bateko Los Panchos taldeari egingo dio omenaldia. Jon Gurrutxaga eta Patxi Zabaleta bikote elgoibartarrak bestalde, rock eta blues doinuak ekarriko dizkigute. Horren ostean, DJ festa izango da. Elgoibar Open Air jaia antolatu dute, eta bertan izango dira Charles Ramirez, Stan Garac, J. Nandez eta Daniel Knob DJak musika jartzen.



241 auzotar batuko dira Santiago Egunean Sigman

Sigmako Eskola inauguratu zutela 50 urte bete dira, eta hori hartu dute aitzaki hainbat auzotarrek, eskola hartan ibili zirenak biltzeko. Santiago Egunean egingo dute ospakizuna, uztailaren 25ean. Garai batean data horretan antolatzen zizuten Sigmako jaiak, eta egun berean bilduko dira aurten ere. 10:30ean batuko dira eskolako patioan, eta zapiak banatuko dituzte. Ondoren meza izango da, eta haren ostean, omenaldia egingo die eskolako maisu eta maistrei. Argazki zaharrez osatutako bideoa emango dute, eta eguerdian Karate jatetxean bazkalduko dute. 241 lagunek eman dute izena.

Arkaitz Astiazaranen argazki erakusketa, Mendaron

Arkaitz Astiazaran abenturazaleak 4.400 kilometro egin ditu bizikletaz Euskal Herrian barrena, eta ibilbide horretan ateratako argazkiekin erakusketa antolatu du, Mendaron. Uztailaren 28tik abuztuaren 13ra arte, Euskal Herriko hainbat txokotan ateratako irudiak ikusteko aukera izango da, beraz, Mendaroko Aitz Beltz tabernan. Abentura hori bera ikusentzunezko dokumental batean jaso nahi du Astiazaranek, eta egitasmo hori finantzatzeko postalak eta egutegiak jarri ditu salgai. Horiek ere Aitz Beltz tabernan bertan erosi daitezke.



YURI EGAÑA

Soroslea

Zarauzko Gurutze Gorrian atera zuen sorosle titulua 2009an, eta ordutik hona Mintxetako igerilekuan lan egiten du Yuri Egaña debarrak. Bere lanaren alde onez eta txarrez berba egin digu.



“Oraingo umeeek gero eta gehiago errespetatzen dituzte sorosleak”

Debakoa zara. Nolatan Elgoibarko igerilekuan lanean?

19 urterekin atera nuen sorosle titulua, eta Debako hondartzan lan egiteko probak gainditu nituen urte hartako udan. Aldi berean, baina, Mintxetako igerilekuetan lan egiteko aukera sortu zitzaidan, eta hona etortzea erabaki nuen, hemen lan-baldintza hobekien eskaintzen zizkidatelako. Ez naiz damutzen hartutako erabakiaz. Lan hau pimeran datorkit udan diru pixka bat ateratzeko, enpresaritza ikasketak egiten ari naiz-eta.

Zein dira zure zereginak?

Igerilekuetako erabiltzaileak zaintzea. Nire talaiatik zelatatzen igarotzen dut denbora gehiena. Hori dut zeregin nagusia. Hortik aurrerakoak ere garrantzitsuak dira, baina bigarren mailako lanak, nolabait.

Zein dira arazorik ohikoena zure lanean?

Ume asko daudenean, igerileku handiaren erdian dagoen uhartetxoan jolasean eta elkarri bultzaka ibiltzen dira zenbait ume, eta horiek kontrolpean izateak ematen digu arazo gehien. Era berean, igerileku txikia debekatuta dago sei urtetik gorakoentzako, baina batzuek ez diote araudiari jaramonik egiten. Gure esanei entzungor egiten diete eta behin eta berriz errepikatu behar izaten diegu.

Umeeek errespetua diote sorosleari?

Bai. Oro har, oraingo umeeek gero eta gehiago errespetatzen gaituzte, nahiz eta badauden adin tarte txar batzuek, 10 eta 13 urte artekoa, esaterako.

Ezbehar larrik edo sustorik bizi izan duzu?

Lanean hasi nintzen urtean, 2009an, izan nuen sustorik handiena. 22 urteko mutil batek epilepsia-krisia izan zuen eta buruz behera geratu zen uretan. Zorionez, garaiz ikusi nuen. Berarengana hurbildu nintzenean, ur asko irentsi zuela eta arnasik ez zuela hartzen konturatu nintzen. Ez zeukan batere kolore onik aurpegian. Bihotz-Biriketako Bizkortze (RCP) teknikak aplikatu nizkion bost minutuz eta arnasa berreskuratu zuen. Handik gutxira azaldu zen anbulantzia eta euren eskuetan laga nuen gizona. Jakin ahal izan nuenez, aste-bete eman zuen UCIn [Zainketa Intentsiboetako Unitate] baina lehengora bueltatu zen. Aitortu behar dut egun hartan igerilekuan zegoen jendeak asko lagundu zidala. 19 urte besterik ez nituen. Bataio modukoa izan zen. Lan honetan uneoro erne egon behar dela erakutsi zidan hark. Erabiltzaileei ezin zaie begirik kendu segundo bakar batean ere. Erantzukizun handiko lana da gurea.

Azken aldian asko berba egin da igerilekuetan, ibaietan edo itsasoan itota hil diren lagunetaz. Zer aholku emango zenituzke ezbeharrik ez egoteko?

Digestioa behar bezala egitea garrantzitsua da. Jan ostean odol guztia urdailaren inguruan batzen da digestioa egin ahal izateko, eta gorputz adarrak odol isuririk gabe geratzen dira. Egoera horretan are gehiago nabari du gure gorputzak beroaren eta hotzaren arteko kontrastea. Kome-nigarria da uretan sartu aurretik dutzatzea eta kolpetik uretan ez sartzea. Aurrekoez gainera, gurasoek uneoro egon behar dute umeak zaintzen.

Igerilekua jendez beteta dagoenetan, 400dik gora lagun batzen direnean, nola moldatzen zarete?

Txikituta bukatzen dugu, ahituta. Agian ez du hala emango kanpotik, baina zaintza lanak jarraian egiteak asko nekatzen du. Estresa eragiten du. Era berean, seigarren zentzumen moduko bat garatzen dugu sorosleok. Ilkusten ikasten da lan honetan, eta begirada batean jabetzen gara gauzak ondo ala oker dauden. Esperientziak ere asko irakasten du.

Zenbat eguzkitako krema poto amaitzen dituzu udan?

Bi poto, gutxienez.

Bihar jokatuko da Azkarateko Igoera, korrika zein bizikletan

Maalan hasiko da lasterketa, 11:00etan

Maalako jaien barruan, hirugarren urtez antolatu dute bihar-ko Azkarateko igoera, korrikalarietarako eta txirrindularietarako. 11:00etan irtengo dira txirrindulariak Maalako errotonda ingurutik, eta korrikalariak 12:00etan hasiko dute lasterketa. Partaideek 5,9 kilometroko ibilbidea egin beharko dute, Azkarateko errepide zaharrean gora. Parte hartzeko 10 euro ordaindu beharko dira. Probaren ostean, salda eta txorizoa banatuko dituzte Maala inguruko tabernariak, eta kontsumizio tiketak zozketatuko dituzte parte hartzaileen artean.

Iazko edizioan 42 lagunek hartu zuten parte bizikletan, eta 23 izan ziren antxixikariak. Bizikletan Aitor Hernandez emuarrak irabazi zuen 15:05 denborarekin, eta errekorra ezarri zuen gainera, Iñigo Lazkano mendaroarren denbora onduz. Korrikako proban, bestalde, Ander Agirre izan zen azkarrena, 24:17 denborarekin. Hala ere, errekorretik urrun geratu zen Agirre: David Slater ingelesak ezarri zuen probako markarik onena (20:40), 1981ean.

Maalako jai batzordeak antolatzen du Azkarateko igoera herri-koia, Mintxeta Atletismo Taldearen eta Gure-Bide txirrindularitza elkartearen laguntzarekin. Orain dela bi urte berreskuratu zuten proba hau, eta aurtengoa izango da hirugarren edizioa.



Gau Krosa

Mintxeta Atletismo Taldeak jakinarazi du Elgoibarko IV. Gau krosa antolatzen ari direla eta nahi duenak izena emateko aukera duela dagoeneko, www.kirolprobak.com webgunean. Aurtengo Gau Krosa irailaren 14an jokatu dute.

Ainhoa Lendinezek irabazi du Lasturko lasterketa emakumezkoetan



Lasturko mendi lasterketa jokatzen zuten zapatuan, eta emakumezkoetan Ainhoa Lendinez elgoibartarrak irabazi zuen proba. 12 kilometroko ibilbidea eta 900 metroko desnibela gainditu behar izan zuten partaideek. Lendinezek 1:31:29 denboran amaitu zuen lana. Lendinezek esandakoaren arabera, bero sargoria izanagatik, ederra izan zen Gaintxipixa tontorrera igotzea eta ondoren Lastur inguruko belardietan lasterka egitea.

Lendinezekin batera, beste bi elgoibartarrek ere hartu zuten parte: Aitor Ibabe 27. lekuan sailkatu zen (1:30:55) eta Haritz Arrietak 29. egin zuen (1:31:31). Guztira 69 lagunek hartu zuten parte.

Sanbartolomeetako harrijasotze txapelketa

Abuztuaren 31n, sanbartolomeetako Baserritarren Egunean, jokatu dute aurten harrijasotze txapelketa, eta parte hartzeko interesa dutenek abuztuaren 9a baino lehen eman beharko dute izena, Kultura Sailean edo 943 742158 telefonoan. Partaideek bi harri irregularrekin egin beharko dute lan, iaz bezala: Mintxeta harria eta Belaustegi harria. Bakoitzarekin bost minutuan jardungo dute, ahalik eta altxaldi gehien egiten. Irabazleak 600 euro eta garaikurra jasoko ditu; bigarrenak 500 euro; hirugarrenak 400 euro; laugarrenak 300 euro eta bosgarren sailkatuak 200 euro.

Edu Uribek ezin izan zuen Ehunmilak mendi lasterketa amaitu, ekaitz arriskua zela-eta proba eten egin zutelako

Goierriko Bi Handietan bost elgoibartarrek hartu zuten parte

Euskal Herriko mendi lasterketa luzeena eta gogorrenetarikoa jokatu zen asteburuan: Ehunmilak ultratraila. 166 kilometroko ibilbidea eta 22.000 metroko desnibel metatua gainditu behar zituzten partaideek. Gure ordezkarien artean Edu Uribek hartu zuen parte, baina ekaitz arriskua zela eta, Txindokin eten egin behar izan zuten lasterketa, eta korrikalari asko ezin izan ziren helmugara iritsi. Tartean, Edu Uribe bera. Parte hartzaileen segurtasuna bermatzeko hartu zuten erabakia antolatzaileek. Uribek, hortaz, 96 kilometro eginda zeuzkanean laga behar izan zuen proba. "Argi dago askorentzat erabaki gogorra izan zela, baina pertsonak salbu jartzea kirol proba baten gainetik dago", adierazi dute antolatzaileek hartutako erabakiaren harira. Iaz 45 orduan amaitu zuen proba Uribek.

Goierriko Bi Handiak

Ehunmilak probako parte hartzaileek baino zazpi ordu beranduago iriteta dira Goierriko Bi Handiak probako parte hartzaileak, baina



ekaitz arriskuaren ondorioz ordubeteetan atzeratu behar izan zuten horiek ere irteera ordua. Hala, gauerdian irten ziren Beasaindik, probak dituen 88 kilometroak eta 12.000 metro metatuak gainditzeko asmoarekin. Bost elgoibartarrek bukatu zuten proba: Julen Azpia-zuk (13:13:38), Iñaki Etxabek (15:06:58), Iban Muruak (16:22:36), Ekaitz Baskaranek (17:24:36) eta Aitor Azkuek (18:49:45).

Orio eta Berrobiko taldeak sailkatu dira giza proba txapelketako finalerako



Giza proben Gipuzkoako txapelketako finalerdietako bigarren saioa jokatu zuten Mendaron, zapatuan, eta Orioko eta Berrobiko taldeak izan ziren onenak. Orioko taldeak 48 plaza eta 3 zinta osatu zituen Garagartzako eliza aurrean. Berrobikoek 48 plaza eta zinta bat osatu zituzten, eta 46 plaza eta zinta bat Debakoek. Mendaroko taldeak 45 plaza egin zituen herritarren aurrean eginiko saioan. Orioko saioan (39 plaza eta 4,75 metro) baino dezente lan hobea egin zuen Mendaroko zortzikoak, alabaina ez zen laugarren postutik gora egiteko nahikoa izan. Final nagusia Aian jokatuko dute, abuztuaren 4an.

Denboraldiko jokalaria onena izendatu dute Buitre, Concepto Egileko jokalaria ohia



Alvaro Barrera Buitre Concepto Egile areto futbol taldeko jokalaria aukeratu dute denboraldiko jokalaria onena. Hegaleko pibot postuan jokatzen duen 20 urteko jokalaria madrildarrak 25 gol sartu zituen joan den denboraldian, eta taldeak izan duen arrakastaren giltzetako bat izan da. Egin duen denboraldiak oihartzun handia izan du, eta Lehen Mailako talde batek fitxatu du, Castellòko Peñiscolak, hain zuzen ere. Jokalaria onenen zerrenda horretako laugarren postuan Debabarrena klubeko beste jokalaria bat ere ageri da: Raul Nieto.

LANA.....
Eskara

- Mutila lan bila. Barran eta jantokian zerbitzen esperientzia handia. Nagusiak ere zainduko nituzke. ☎ 692 332 871
- Emakumea lan bila: nagusiak edo umeak zain- tzeke eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 686 052 084

ETXEBIZITZAK.....

- Bi pertsonentzako etxebizitza alokatuko nuke Elgoibarren. ☎ 686 052 084

- Etxea alokatzen dut Errosario kalean. 88m². 3 logela, egongela, sukaldea komuna. Altzariekin, berriua. ☎ 647 438 640
- Conil: Etxebizitza alokatzen dut, asteka edo hamabostaldika. ☎ 600 596 538
- Bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. Ez daukagu umerik. ☎ 600 621 605

GARAJEAK.....

- Garaje irekia salgai Debako hondartzan. ☎ 649 275 707
- Bi garaje plaza salgai, Ermuaranbide 9an. Garaje irekiak dira. ☎ 943 743 125 / 686 480 615

- Garajea salgai Lekuederren. 3. solairua, sarbidea kaletik. Instalazio elektrikoa eta ate automatikoa. ☎ 943 741 674 / jotakados@gmail.com

BESTELAKOAK.....

- Arratoi txakur bat aurkitu dugu, marroi-zuri kolorekoa. Lepoko beltza dauka. Pare bat urte ditu. ☎ 659 692 640

KINTOAK.....

- Aurten 25 urte betetzen dituzten elgoibartarren kinto afaria, azaroaren 9an. Interesatuak ondorengo helbidera idatzi: elgoibar1988@gmail.com

ESKERTZA




RAMONA ZUBIZARRETA AZKOITIA

"Moña"

2013ko uztailearen 17an hil zen, 99 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola,
hileta elizkizunetara agertu izana.





II. URTEURRENA




PAKITA ZUBIAURRE AZPIAZU

2011ko uztailearen 27an hil zen.
Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, uztaileak 27,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.





P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



ERAIKINEN AZTERKETA TEKNIKOA (I.T.E.)


2012ko uztailetik, ezinbestekoa da 50 urte baino gehiago dituzten etxeetan Azterketa Teknikoa egitea. Azterketa honen bidez etxearen egoera eta kontserbazioa ziurtatzen dira. Horrez gain, etxearen segurtasuna, finkotasuna eta baliagarritasuna ere aztertzen dira.

Azterketa hori etxe jabeak egin beharko du, aditua den tekniko baten bidez. Teknikari honek, besteak beste, honako hauek aztertuko ditu: zimentazioa, egitura, fatxada, instalazio guztiak, teilatua... Aztertutako baliabide guztiak, akatsak, patologia eta ondorioak zehaztuko dira. Txosten horretan hartu beharreko segurtasun neurriak jasoko dira, beharrezkoak diren obrak eta lanak zehaztuz, eta, egin beharreko horien epeak ere jarriko dira.

Guzti honetan, Finken Administrazioak duen egitekoa ezinbestekoa da, besteak beste, egin beharreko horiei buruzko erabakiak hartzeko aholkuak emateko, aurkeztutako txostenaren edukia azaltzeko eta etxeari dagozkion ondorengo erabakiak zuzen har daitezzen. Era berean, erakunde ofizialetara bideratuko du dokumentua bera.

Gomendioa: Finken Administrazioak komunitateari aholkuak ematerakoan jabeen interesak defenditu behar ditu.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Centro Vasco de Estudios de Administración de Edificios
Servicio de Fidejamentación Lectora Social



• Zorionak, **June**, igandean 5 urte betetzen dituzulako. Muxu asko, familiako guztien partez.



• Zorionak, **Aitana**, gurasoen eta aiton-amonen partez. Askomaite zaitugu.



• Zorionak, **Terese**, eta muxu pila bat zure hirugarren urtebetetzean.



• Zorionak, **Irune!** Dagoeneko 6 kandela! Ondo-ondo pasa, printzesa, etxekoan partez.



• Zorionak **Estiburi**, hilaren 28an 4 urte bete dituelako. Muxu handi bat familia osoaren partez, eta bereziki Unax eta Ikerren partez



• Zorionak, **Maddi**, datorren astean 9 urte beteko dituzulako. Ondo ospatu! Muxu, Mikel, Iker, Ander, Jone eta etxekoan partez.



• Etxeko txikixa ya ez dala hain txikixa! 11 urte handi! Zorionak, **Ibon**, etxekoan partetik, eta muxu potolo bana.



• Zorionak, **Maria**, bihar 6 urte egiten dituzulako. Muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, Elene, Maialen eta Xabaten partez.



• Jada 7 urte! Zorionak, **June**, eta muxu handi bat, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Galdar**, uztailaren 17an 2 urte egin zenituelako. Tirakada handi bat belarrietatik, familiako guztien partez. Segi beti bezain alai.




• Zorionak, **Mikel**, hurrengo asteartean 4 urte potolo beteko dituzulako. Ondo pasa! Muxu handi bat.



• Zorionak, **Nerea**, hilaren 29an 8 urte egingo dituzulako. Familiakoan, eta bereziki, Ander, Paula, Sara eta Leireren partez, muxu potolo bat.




• Zorionak, **Ane**, igandean 9 urte egingo dituzulako. Etxekoan eta bereziki lehengusuen eta Lukiren partez



• Zorionak, **pirata!** 6 urte handi ez dira egunerobetetzen. Txokomarrubizko mila muxu zureztat, maittaa.



• Zorionak, **Eneko eta Enetz**, abuztuak 5 eta 11n urteak betetzen dituzuelako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Lorena eta Andres**, bihar eta asteazkenean zuen urtebetetzeak! Muxu asko, familiakoan partez.



• Azkenean iritsi da zuen egun handia! Oso ondo pasa eta muxu handi bat Nerearen koadrilakoan partez. Guk ere primeran pasatuko dugu.



• Zorionak, **Aner eta Eneko**, laster 5 urte handi egingo dituzuelako. Ondo pasa zuen urtebetetze egunean, eta segi jator. Muxu, denon partez.



• Zorionak, **Urtzi eta Haizea**, uztailaren 29an 7 urte egingo dituzuelako. Patxo handi bat, bereziki amamaren partez.



• Zorionak, **Paula eta Markel**, zuen bosgarren urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoan partez, bereziki Vega eta Luciaren partez.



• Zorionak **etxeko bi txapeldunei eta gure printzesari**. Askomaite zaituztegu.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.



Uztailaren 24an
agur festa
Ludotekan,
10:00etatik
12:00etara.
Animatu!

Uztailaren 24an
argazki
emanaldia eta
agur festa.
Oporretara goaz!



24 *eguztana*

Dantza ikuskizuna

22:30 Nazioarteko Folklore Jaialdia

Haritz dantza taldeak antolatu, Olaizaga kiroldegian.

25 *eguztana*

Sigmako auzotarren jaia

10:00 Pilota txapelketako finalak

Sigmako frontoian.

11:00 Hildako auzotarrak oroitzeko ekitaldia

Eskoletan.

Jarraian, argazki zaharren erakustaldia

Elizan

Ondoren, taldeko argazkia ateratzea eta luntxa

14:30 Bazkaria

28 *domeka*

Sargoateko erromeria

11:00 Meza

11:30 Salda eta txorizo banaketa

Jarraian, bertsolari eta trikitilariak

German Meabebasterretxea eta Ziarda bertsolariak, eta Xabier eta Ekain trikitilariak.

31 *eguztana*

Dantzaldia

18:30 Eguren orkestra

Maalako parkean.

MAALAKO JAIAK

UZTAILAK 20, ZAPATUA

11:00 Azkarateko

Igoera bizikletan

12:00 Azkarateko

Igoera korrika

13:00 Sari banaketa

20:00 Kontzertua

Maalako parkean.

Trio Medianoche eta

Bikustik taldeek joko dute.

22:30 DJ emanaldia

Maalako parkean.

UZTAILAK 22, DOMEKA

12:00 Meza nagusia, Maalako elizan.

Jarraian Mokadua,

Maala auzoko

tabernetan

SALLOBENTEKO JAIAK

ABUZTUAK 2, BARIXAKUA

19:00 Kanpai-jotzea eta suziriak

Jaien hasiera

iragartzeko

Ondoren, errosarioa eta meza

Auzoko hildakoen alde

20:00 Bakailao jana

Auzoko aiton-amonei eskainia, bereziki.

Afalostean,

Bertsolariak

Uxue Alberdi eta Anjel

Mari Peñagarikano

23:00 Bolo saioak

23:30 Erromeria

Zerosete taldearekin.

ABUZTUAK 3, ZAPATUA

16:30 Haurrentzako jolasak

Soinu-joleek girotuta

Jarraian, txokolate

jana

Ondoren, zezentxo

eta pottokak

20:00 Emakumeen

bolo saioa

23:00 Erromeria

Eztengiro taldearekin.

Ondoren DJ gaua

Gauerdian, bolo

txapelketa

ABUZTUAK 4, DOMEKA

11:00 Meza

Ondoren, salda eta

txorizoa

Jarraian, pilota

partidak

14:30 Bazkaria

Xabier eta Ekainek

girotuta

18:00 Herri kirolak

Goenatxo eta

Larrañaga

harrijasotzaileak, eta

Perratx eta Zaldua

aizkolariak.

Ondoren, zezentxo

eta pottokak

22:00 Bolo saioa

Ondoren, erromeria,

Xabier eta Ekainekin

ABUZTUAK 10, ZAPATUA,

SAN LORENTZO EGUNA

11:00 Meza

Ondoren, dantza

Haritz dantza

taldearekin.

12:30 Pilota partidak

SANTUMOTZ JAIAK

ABUZTUAK 4, DOMEKA

11:00 Meza

Santumotz lautadan

Ondoren, salda eta

txorizoa

Segidan, bertsolariak

Ziarda eta Narbaiza.

Tarteka, Lidia eta

Xabier trikitilariak

girotuko dute eguna.

14:30 Bazkaria

San Pedro jatetxean.

Izena emateko:

616 524 106

telefonora deitu.

Ondoren, bertsolariak

Iluntzera arte,

erromeria

SAN ROKE JAIAK

ABUZTUAK 15, BEZPERA

17:00 Kanpai jotzea

eta suziriak

Jaiei hasiera

emateko

19:00 Errosarioa

Auzoko baselizan

19:30 Untxi askatzea

Jarraian, zezentxoak

eta poniak

22:00 Erromeria

Naiara Plaza eta

Eneritz Kaltzakorta

trikitilariarekin.

Jarraian, bolo saioa

ABUZTUAK 16, SAN ROKE

EGUNA

9:00 Suziriak

11:00 Meza

Ondoren, Haritz dantza

taldearen emanaldia

Jarraian, txinga

lehiaketa

18:00 Haurrentzako

jolasak eta untxi

askatzea

Ondoren, txokolate

jana

Jarraian, zezentxoak

eta poniak

22:30 Erromeria

Mirari eta

Aintzanerekin

24:00 Bolo txapelketa

ABUZTUAK 17, SAN ROKE

TXIKI EGUNA

9:00 Suziriak

11:00 Meza

Auzoko hildakoen

omenez

Ondoren, txapel

jaurtiketa

Segidan, untxi

askatzea

14:00 Bazkaria

Baltzola anaiek

girotuta

18:00 Idi-demak

Ipiñarrieta (Urretxu)

eta Bentaoste

(Elosua)

Ondoren, untxi

askatzea

Gero, zezentxoak eta

poniak

22:30 Erromeria

Baltzola anaiek

01:00 Errifaren

zozketa



FARMAZIAK

BOTIKA ORDUTEGIAK:
9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK UZTAILA

| Egunez | Gauetz |
|---------------------|---------------------|
| 9:00 - 22:00 | 22:00 - 9:00 |
| 19 Etxeberria | Etxeberria |
| 20 Ibañez | Barrenetxea |
| Goizez: Barrene. | |
| 21 Ibañez | Barrenetxea |
| 22 Yudego | Yudego |
| 23 Zabaleta | Etxeberria |
| 24 Barrenetxea | Barrenetxea |
| 25 Barrenetxea | Barrenetxea |
| 26 Garitaonandia | Garitaonandia |
| 27 Etxeberria | Etxeberria |
| 28 Etxeberria | Etxeberria |
| 29 Fernandez | Barrenetxea |
| 30 Garitaonandia | Garitaonandia |
| 31 Zabaleta | Etxeberria |

GUARDIAK ABUZTUA

| Egunez | Gauetz |
|---------------------|---------------------|
| 9:00 - 22:00 | 22:00 - 9:00 |
| 1 Etxeberria | Etxeberria |
| 2 Zabaleta | Etxeberria |
| 3 Garitaonandia | Garitaonandia |
| 4 Garitaonandia | Garitaonandia |
| 5 Etxeberria | Etxeberria |
| 6 Fernandez | Garitaonandia |
| 7 Garitaonandia | Garitaonandia |
| 8 Zabaleta | Etxeberria |
| 9 Etxeberria | Etxeberria |
| 10 Zabaleta | Etxeberria |
| Goizez: Etxeberria | |
| 11 Zabaleta | Etxeberria |
| 12 Garitaonandia | Garitaonandia |
| 13 Etxeberria | Etxeberria |
| 14 Fernandez | Garitaonandia |
| 15 Ibañez | Garitaonandia |
| 16 Ibañez | Barrenetxea |
| 17 Barrenetxea | Barrenetxea |
| 18 Barrenetxea | Barrenetxea |
| 19 Ibañez | Yudego |
| 20 Yudego | Yudego |
| 21 Barrenetxea | Barrenetxea |
| 22 Fernandez | Barrenetxea |
| 23 Yudego | Yudego |
| 24 Ibañez | Yudego |
| Goizez: Yudego | |
| 25 Ibañez | Barrenetxea |
| 26 Barrenetxea | Barrenetxea |
| 27 Ibañez | Yudego |
| 28 Yudego | Yudego |
| 29 Barrenetxea | Barrenetxea |
| 30 Fernandez | Barrenetxea |
| 31 Yudego | Yudego |

GUARDIAK IRAILA

| Egunez | Gauetz |
|---------------------|---------------------|
| 9:00 - 22:00 | 22:00 - 9:00 |
| 1 Yudego | Yudego |
| 2 Zabaleta | Garitaonandia |
| 3 Barrenetxea | Barrenetxea |
| 4 Ibañez | Yudego |
| 5 Garitaonandia | Garitaonandia |
| 6 Etxeberria | Etxeberria |

OKINDEGIAK

UZTAILA

21 domeka EIZAGIRRE
25 eguna EIZGIRRE
28 domeka IBARRENEA
31 eguaztena EIZAGIRRE



AIRE LIBREKO ZINEA, KALEGOEN PLAZAN, 22:30EAN HANDIAN

«El gran Gatsby»
19, barixakua

«Ice age 4»
28, domeka

«Los pingüinos del señor Poper»
20, zapatua

«Las aventuras de Tadeo Jones»
30, martitzena

«Los amantes pasajeros»
26, barixakua

«Misión imposible, protocolo fantasma»
27, zapatua



OHARRA

Abuztuaren 23an jasoko duzue San Bartolome jaietako ale berezia, eta irailaren 2an hasiko gara lanean berriro. Abuztuan **BARRENEKO** erredakzioa itxita egongo da.





Nafarroa enparantza z/g
Tel.: 943 741 230

Ondo pasa
Sanbartolomeetan!

SAN BARTOLOME JAIETAKO MENUA

- Sarrerakoa
- Meloia entsaladan, tomate zopa hotza eta urdaiazpiko iberiko txirbilekin
- Txokolatezko foie bonboia, franbuesa sorbetea eta bioleta konfiturarekin
- Gorringoa labean, Idiazabal gazta puskekin, patata-trufa krema arina eta chips patatak
- Zapoa plantxan, patata zapalekin edo
- Bakailao konfitatua bi saltsekin edo
- Azpizuna onddo saltsarekin edo
- Arkume txuletatxoak chicharron erara
- Gerezi kopa jogurt moussearekin
- Txokolate couland-a, fruitu gorri izozkiarekin
- Kanutiloak limoi kremarekin

• Kafea

35 euro + BEZ

* Nahi izanez gero, zure neurrirako menua ere egiten dugu



OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 10
Elgoibar
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00
San Frantzisko, 21

Elgoibar
Tel: 943 740 359

MASAJEAK

22\12

VICTORIA IRAEGI

(Ez da osasun etxea)

Esku terapiak
• Kiropraxia
• Dranatzaile linfatikoa
• Osteopatia
• Kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea)

Astelenetik
Ostiralera:
8:00 / 14:00

San Frantzisko
kalea, 40 (atzealdea)
Elgoibar
Tel.: 943 740 770

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplantak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINDLARINGOLOGIA

UZURI

- Entzumen protesia **BERRIA!**
- Tapoiak neurrira (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Frantzisko, 21
Elgoibar
Tel: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953
Tel.: 669 565 745

177\12
fisio&mas

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea
- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)

- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).
- Mesoterapia homeopatikoa:
+Traumatologia.
+ Estetika (zelulitisa, estriak)

Osasunerako ariketa agindua
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak (errehabilitazioa) 3 pertsona gehien.

Txirindulariaren biomekanika (kalak, ergonomia bizikletan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.
Tel.: 943 740 191
667 953 628